



Mariano Ferrer, hizketan, BERRIAKO zuzendari Martxelo Otamendi begira duela. RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Kazetaritzak loturak ezin hautsi

Mariano Ferrerren ustez, teknologia berriek eta «botere politikoak» baldintzatzen dute informazioa gaur egun

Jon Rejado Gasteiz

Komunikabideak hedatzen ari dira munduan zehar. Handi bihurtu da kazetaritza hedadura aldetik. Ordea, gero eta autonomia gutxiago duela uste du Mariano Ferrer kazetariak. Hau da, gero eta lotura gehiago dituela. «Kazetaritza handitu da, bai, baina ez du heldutasuna lortu», laburbildu zuen atzo Ferrerrek *Hedabideak etorkizunean, biharko komunikabideak eta Internet* jardunaldietan. Euskarazko Komunikazio Taldeak antolatu ditu, Arabako Foru Aldundiaren babesarekin.

Azken urteetan kazetaritzan gertatzen ari den aldaketa ulertzeko, gaur egun informazioa baldintzatzen duten hiru gertakari nabarmendu ditu Ferrerrek. Tek-

nologia berrien aroan, globalizazioarekin batera kontzentrazioa gertatzen ari da, hedabide talde handiak sortuz. Talde horiek gobernuei presio egiten diete; hedatzen jarraitu ahal izateko mugak lausotzeko eskatzen diete. Hedabideak bestelako botere batzuen «luzakin mediatikoak» bihurtu dira, Ferrerren iritziz.

Horrez gain, egungo informazio enpresek «informazioaren salerosketaren» maila guztiak kontrolpean dituztela gaineratu du kazetariak: edukien sorrera, igorpena, kontsumitzaileekin harremana... Enpresa horiek ere hedabide mota guztiak izan nahi dituzte eskura, telebista dela, irratiak dela, edo prentsa dela. Ordea, garai batean helburu nagusia zena, zerbitzu publikoa izateko borondateak, atzera egin duela gaineratu du.

Azkenik, hedabideen eta politikarien arteko harremana aldatuz joan dela gaineratu du Ferrerrek. Hala, historikoki hedabideak botere politikoaren kontrako jarreararekin sortu arren gaur egun botere horrekin «identifikatzeko»

jarrera dute. «Hedabideak boterea biltzeko tresna dira; komunikazioa ez da askatasuna lortzeko faktorea jada, menperatzeko baizik». New Yorkeko 2001ko eta Ma-



Komunikazioa ez da dagoeneko askatasuna lortzeko faktorea, menperatzeko baizik»

«Herritarra babesik gabe dago inolako kontrolik ez duten hedabide taldeen aurrean»

«Hedabideek toki bat dute gure bizitzan; ondo legoke gizarte hobe egiteko balio izatea»

MARIANO FERRER
Kazetaria

drilgo 2004ko atentatuen ostean hedabideak «iruzur masiboen arma» bihurtu direla kritikatu du Ferrerrek. Irakeko gerra horren adibide argiena izan daiteke kaze-

tariaren arabera, XIX. mendearen bukaeran *Maine* AEBko duontziaren leherketa izan zen bezala. «Herritarra babesik gabe dago inolako kontrolik ez duten hedabide taldeen aurrean».

Etorkizunerako erronkak

Testuinguru horretan, eta teknologia berriek gaur egun duten eta izango duten garrantzia kontuan hartuta, horri aurre egin beharko dio kazetaritzak. «Teknologiak heldu dira, eta geldituko dira; kontrakoa pentsatzen duena paretaren kontra joko da etengabe». Berrikuntza horrekin kazetaritza ogibidea desegin da botere talde bakoitzaren nahien arabera. «Botere talde batzuk ikusi zuten errazagoa zela haien informazioa lortzea, hedabideek idazten zutena kontrolpean izatea baino».

Kazetariaren lanak gero eta indar gutxiago duela gehitu du. «Garai batean kazetariak erabaki teknikoak hartu behar zituen, baina horretaz gain erabaki horiek etikan oinarrituta egon behar zuten». Etika hori bermatzeko kazetariak zorrotza izan behar

↓ Gaur

■ **17:00etan.** *Irratigintza internet aroan* izeneko World Kafea egingo da Artium museoan, gai horren inguruan hausnarketa egiteko.

■ **19:30ean.** Irratigintzaren geroaz hitz egingo dute Jose Luis Aizpuruk (Euskal Irratiak), Mikel Bujandak (Euskalerrria Irratia) eta Xabier Monasteriok (Bilbo Hiria Irratia). Ismael Diaz de Mendibil Gasteiz Irratiko kazetariak moderatzaile lana egingo du.

du ematen duen informazioarekin, eta independentea izan behar du horren berri ematerakoan. Kazetariaren lana nabarmendu du Ferrerrek gaur egungo mundu globalizatuan, zeinean edonork eman dezakeen gertakari baten berri. «Osasunerako eskubidea dagoelako sendagileak dauden bezala, kazetariak egon behar dute informazioarako eskubidea dagoelako». Testuinguru horretan, ordea, kazetariak albistea bere tokian jarri behar du.

Hori da, hain zuzen ere, etorkizunerako beste erronka bat, Ferrerren iritziz. Kazetariak testuinguruaren berri eman behar du gertakariaren neurria ulertzeko baliogarria izan dadin. Jazorearen zergatiaren giltzak, alegia. «Lortu behar dena irakurlea ez nahastea da».

Ferrerren ustez «iparra galdu da» garrantzitsua den informazioa zehazterakoan. Hedabideetan dagoen «zarata informatibo» horren baitan kazetariak agerian utzi behar du zer den garrantzitsua. Ferrerren ustez hori lortzeko hedabideek haien irizpideetan oinarrituta egin behar dute aurrera, botere ezberdinek markatzen duten alde-aurreko ildo jarraitu gabe. «Hedabide batek ideologia bat izan dezake, baina beste gauza bat norbaiten ordezkaritza izatea da».

Hori gertatu ez dadin kazetariaren eta hedabideen etikaren garrantzia nabarmendu du, zerbitzu publikoa eskaini eta gizartearen eskubidea modu zuzen batean kudeatu dezaten. «Hedabideek toki bat dute gure bizitzan; ondo legoke gizarte hobe egiteko balio izatea».

Zure inguruko informazioa euskaraz eskura

Et si vous vous informiez autrement ?

euskarazko-hedabideak.com
medias-bascophones.com

Logos: euskadi irratia, gaztea, Auzoari lagun, Irulegoko Irratia, GYM IDEATIE, Auzo Irratia, ARGIA, berria, Mintza, hitza, hitza, kazeta info, etbo, etbo